

M.U.k hitzarmena sinatu du Txileko Federico Santa Maria Unibertsitate Teknikoarekin

2007/09/20

Igaro den irailaren 10ean hitzarmen-markoa sinatu zuten Mondragon Unibertsitateak eta Valparaisoko (Txile) Federico Santa Maria Unibertsitate Teknikoak.

Hitzarmenaren helburuak hauek dira:

- Bi unibertsitateen artean eta horietako ikasleen artean harreman estua izatea.

- Elkarrekin jarduerak abian jartzea, erakunde bakoitzaren indarrak aprobetxatuz, lankidetzagune berriak bilatzeko eta sortzeko.

Horretarako, bi unibertsitateek hezkuntza-trukerako eta profesionalak zientifikoki eta teknologikoki trebatzeko jarduerak proposatu, koordinatu eta garatuko dituzte, ikasleen garapen integrala bermatzeko eta sustatzeko.

Gainera, Federico Santa Maria Unibertsitate Teknikoaren Viña del Mar egoitzak eta MUren Goi Eskola Politeknikoak hitzarmen-marcoaren osagarria den protokolo bat sinatu dute honako jarduera hauetan lankidetzan aritzeko berriazko hitzarmenen bitartez: graduoko heziketa, graduondokoa eta etengabeko prestakuntza, laneratzea, praktikak enpresetan, azterketa teknikoak, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Unibertsitate publikoa da Federico Santa Maria Unibertsitate Teknikoa. Egoitza nagusia Valparaisoan du, eta campusak Santiago-n, Viña del Mar-en, Rancagua-n, Talcahuano-n eta Guayaquil-en. Federico Santa María Carrera enpresariaren ideia izan zen unibertsitatea sortzea, eta 1929an Unibertsitate Partikular gisa onartu zuten. 1932an, berriz, arte-eta lanbide-eskola izatera pasa zen, eta 1934an ingeniari-eta eskola.

Gaur egun, Unibertsitateak 9.433 ikasle ditu matrikulatuta 61 karreratan, eta 253 irakasle egiten dute lan dedikazio osoan eta 586k lanaldi partzialean.

